

SEME SOLDADUAK AMARI

Mailen Dagorret, 15 urte

Itsasu

1.

Heldu zaigu udaberria,
Zeruan barna oskorria.
Horra, ama maitagarria,
Goaitatu paper xuria,
Lasaitasun gutun berria,
Sutik zuretzat ekarria.
Sortu da gerla lazgarria!
Gogoan dudala herria.

2.

Erabaki dolugarria,
Bihotzean barna harria,
Horra apropos ezarria,
Han xokoan da baserria,
Gazteen bihurrikeria,
Baita zorion iturria.
Adio maitasun historia
Gerlarako naiz etorria.

3.

Gizakien bortizkeria,
Mendekatzeko guraria,
Horra gerlaren jatorria.
Beti hor da, beldurgarria,
Inguruan amets gorria,
Gerla-lagunen laborria
Ikusiz hilen ihaurria.
Zein ezdeus den gudaria!

4.

Lubakian iratzarria,
Eguneroko miseria,
Itzuli nahi dut orria,
Sutik urrundu memoria.
Gauaz deitzean sokorria,
Ez da nehondik igorria,
Sendatzeko ene zauria.
Hau ote da ene zoria?!

5.

Joan zaigu ilberria,
Harekin ene larderia,
Eta bizitzeko tirria.
Berrikusiko ote herria?
Ala egoitatzat hilerria?
Atxiki, otoi, ama irria,
Ez baita adio mingarria,
Baina elkartzeko karia.